

58/2026 ALKATE DEKRETUA

Gaia: Itsasondoko Udalaren alokairu sozialeko udal etxebizitzak esleitzeko deialdia

Aurrekariak

2026ko otsailaren 26ko Osoko Bilkurak Itsasondoko Udalaren alokairu sozialeko udal etxebizitzak esleitzeko oinarri arautzaileak onartu zituen.

Udalaren jabetzako hainbat etxebizitza hutsik daudenez, bidezkoa da oinarri horietan aurreikusitako esleipen-prozedura abiaraztea.

Gaia azterturik, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak eta 781/1986 Errege Dekretu Legegileak, Toki Araubidearen xedapenen Testu Bateratua arautzen duenak, emandako ahalmenak egikaritzuz,

ERABAKI DUT:

LEHENA: Itsasondoko Udalaren alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzeko deialdia onartzea.

BIGARRENA: deialdi honetan honako udal etxebizitzak sartzea:

- Kale Nagusia 7, 1. solairuko etxebizitza (3 logelakoa).
- Kale Nagusia 7, 2. solairuko etxebizitza (2 logelakoa).

HIRUGARRENA: deialdi honetarako eskabide-eredua onartzea, dekretu honen eranskin gisa.

LAUGARRENA: esleipen-prozedura, parte hartzeko baldintzak, balorazio-irizpideak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako alderdiak 2026ko otsailaren 26ko Osoko Bilkurak onartutako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

BOSGARRENA: eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar (20) egun naturalekoa izango da, 2026ko ekainaren 11tik 2026ko ekainaren 30era bitartean, biak barne.

SEIGARRENA: Deialdia, oinarri arautzaileak eta eskabide-eredua udalaren webgunean, egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan argitaratzea..

ZAZPIGARRENA: ebazpen honen berri hurrengo Osoko Bilkura arruntean ematea.

Itsasondoko Udala, 2026ko ekainaren 10ean.
Iñaki Aizpuru Oiarbide

Nagusia 24, 20249 Itsasondo / 943 881 170 / www.itsasondo.eus



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

58/2026 zuzendua

CSV/EKS:

SINAd63e35c0-0f3c-40ca-98fd-19640f6697fa